

### **GENERO BERDINTASUNA - KONPROMISOA**

Inmakulada IKASTETXEAK bere konpromisoa adierazi du emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra integratuko duten estrategiak ezartzeko eta garatzeko, oinarrizko eta zeharkako printzipio gisa, genero-ikuspegia Ikastolako kudeaketa-eremu guztietan txertatuz, hezkuntza-jarduera eta -zerbitzu guztietan, barnean zein kanpoan, berdintasunaren aldeko apustua gure erakundearentzat eta gizarte osoarentzat balio erantsia dela sinetsita.

Horretan oinarrituta, konpromiso hauek hartzen ditugu:

1. Ikastolan lan egiten duten emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzea, enplegua lortzeari, prestakuntzari, sustapenari, soldata- eta lan-baldintzei, lan-arriskuen prebentzioari eta ondasun, zerbitzu eta horniduretarako sarbideari dagokienez.
2. Plantilla osatzen duten pertsonen lana, bitzta pertsonala eta familia bateragarri egiten laguntzea, erantzukidetasuna sustatuz.
3. Genero-ikuspegia txertatzea hezkuntza-zerbitzuetan, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eta ikasleekiko tratuan.
4. Indarkeria ikasgeletan eta gizartean: hezkuntza-komunitatea genero-indarkeriaren arazoaz sentsibilizatuz eta kontzientziatuz, eta hezkuntza-eremuan prebentzio-neurriak hartuz ikusarazten eta desagerrarazten laguntzeko.
5. Gure hezkuntza-komunitatean sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzea.
6. Aniztasuna txertatzea eta integratzea. Sexu-aniztasuna onartzeko eta pertsona guztiak hezkuntza-komunitatean eta gizartean erabat integratzeko hezkuntza, haien aukera afektibo edo sexualak eraginik izan gabe.
7. Erakundeko langile guztiak sentsibilizatzea eta prestatzea, Berdintasun Planean eta jardueretan parte har dezaten.
8. Hizkuntza eta irudiak modu inklusiboan erabiltzea, gure barneko zein kanpoko komunikazioetan.
9. Beste erakunde batzuk eta herritarrak sentsibilizatzeko balio duten berdintasunezko balioak sustatzea eta zabaltzea, eta ildo horretan gizarte-aldaketak sortzen lagunduko duten jarduerak abiaraztea

Adierazitako printzipioak berdintasun-planak ezarriz gauzatuko dira. Zuzendaritzak pertsonalki hartzen du bere gain konpromiso hori, eta behar diren baliabideak esleitzen ditu gure berdintasun-plana etengabe garatzeko, ezartzeko, berrikusteko eta hobetzeko.

2022ko otsaila

Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastolako zuzendaria